



**Arartekoaren 2015-IR-974-14 Ebazpena, 2015eko ekainaren 24koa. Honen bidez, amaitutzat ematen dugu Hondarribiko Udalak hirigintza-kontsulta bati erantzun ez diolako aurkeztutako kexaren inguruan egin dugun esku-hartzea.**

### Aurrekariak

1. 2014ko maiatzean, pertsona batek Arartekoarengana jo zuen, Hondarribiko Udalak hiritar horren hirigintza-kontsultari erantzun ez izana salatzeke.

Bere erreklamazioaren xedea (...) kaleko (...) zenbakiko lokalean (... kafetegia) egindako obren gaineko informazioa eskatzea da –2012ko azaroaren 21ekoa–. Idazki horretan azaldu zuen aire girotuko gailu bat instalatu zutela, eraikinaren fatxadan eragina duten zaratak eta dardarak sortzen dituen.

Kexagileak eskaera hori bi bider egin du (2013ko otsailaren 21ean eta 2014ko otsailaren 3an) eta instalazio horrek behar duen obra-lizentzia ez baldin badu, dagokion hirigintza-diziplinako espedientea abian jartzeko eskatu du. Espedientea izapidetzeaz arduratzen duen pertsonari buruzko informazioa bidaltzeko, eta, hala badagokio, erantzunik eza dela-eta, diziplina-espedientea irekitzeko eskatu du.

Ordura arte inolako erantzunik jaso ez zuenez, erakunde honetara jo zuen.

2. Erreklamazio hori behar bezala izapidetzeko, 2014ko maiatzaren 6an bidalitako idazkiaren bidez, Hondarribiko Udalari eskatu genion erreklamazio hori aztertzeke beharrezko informazioa eta dokumentazioa bidal zezan. Zehazki, aipatutako eskaerari eman zitzaion erantzunari buruzko informazioa eta erantzuna atzeratzeko arrazoi zehatzak eskatu genizkion.

Informazio-eskaerari erantzunik jaso ezean, 2014ko ekainaren 20an, errekerimendu bat bidali genion. Informazioa bidaltzeko aurreikusitako epea ondo igaro zelarik, berriro egin genuen eskaera, 2014ko azaroaren 18ko ohararazpenaren bidez.

3. Nahiz eta lehenengo eskabidetik gaur arte 13 hilabete baino gehiago igaro diren, Hondarribiko Udalak ez du bete gure eskabideari erantzun formala bidaltzeko duen betebeharra.

Hori guztia kontuan izanik, gure epaitze-parametroekin bat etorritik eta daukagun informazioa kontuan izanik, ondoko gogoetak jakinarazten dizkizut:

### Gogoetak

1. Erreklamazio horren xedea (...) kaleko (...) zenbakiko lokalean (... kafetegia) egindako obren gaineko administrazio-espedienteari buruzko kontsultari erantzun ez izana aztertzea da. Idazki horretan aipatu zuen aire girotuko gailu bat instalatu zutela, eraikinaren fatxadan eragina duten zaratak eta dardarak sortzen dituen.





Aipatu genuenez, Hondarribiko Udalaren lankidetzarik eza dela-eta, erreklamazio horri buruz erakunde honek duen informazio urriaren arabera, udalak informazio-eskaera bakar bati ere ez dio erantzun. Kexan hainbat eskaera bidali direla aipatzen da. Lehenengo kexa, 2012ko azarokoa, aire girotuko instalazio baten hirigintza- eta ingurumen-kontrolari eta azalpen-eskaerari erantzuteko Udalak burutu dituen jardueri buruzkoa izan da. Bigarrena 2013ko otsailekoa izan da eta horren bidez, kexagileak berriro egin zuen eskaera eta informazioa eskatu zuen espedientea izapidetzeaz arduratzen zen funtzionarioari buruz. 2014ko otsailean, erantzunik eza dela-eta, diziplina-espedientea irekitzeko eskatu zion Udalari.

Geroago, kexagileak jakinarazi zigun udalak ez ziola bidali burutu zituen jardueri buruzko informazioa.

2. Abiaburu gisa, gogoratu behar dugu pertsona interesatuek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela herri-administrazioek. Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berariaz jasotzen du herri-administrazio guztiei zuzendutako agindu hori.

Azaldutako kasuan, Hondarribiko Udalak aurkeztutako idazki bakar bati ere ez dio erantzun. Eskaeretako batean sailkatutako jarduera batekin zerikusia duen espedientean jasotako dokumentazioa ikusi ahal izateko eskatu da.

Esanbidezko ebazpena ezarritako epean emateko lege-betebeharra betetzeko erantzukizuna gaiak bideratzea arduratu behar duten bulegoko langileei, eta instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena duten administrazio-organoetako titularrei dagokie. Azpimarratu behar da xedapen horrek esanbidez ezartzen duela ezarritakoa ez betetzeak diziplinazko erantzukizuna ekarriko diola hausleari. Era berean, erantzuteko betebeharrak ebazteko epea amaitu denean ere irauten duela.

3. Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz, eta eskatutakoari emandako erantzuna berrikustea galarazten du.

Berriro ere adierazi behar dugu herritarren erreklamazioei erantzun formalik ez ematea administrazioen funtzionamendu txarra dela eta Arartekoak salatu egin behar duela.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1 eta 105. artikuluetan– bermatzen du administrazio-izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna ematen zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak –Lisboako Tratatuak sartutakoak– 41. artikuluan biztanleei ematen dien administrazio egokia izateko eskubidea osatzen dute.

Administrazio ona izateko eskubidearen barruan, planteatutako auziei arrazoizko epe batean esanbidez erantzuteko betebeharra aipa genezake. Horrez gain, administrazioak idazkiak jaso dituela jakinarazi behar die herritarrei, eta, hala badagokio, zergatik berandutu den azaldu.





Hori dela eta, esan behar dugu Hondarribiko Udalak behar bezala izapidetu behar dituela biztanleek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Aurrekoari kalterik egin gabe, adierazi beharra daukagu dokumentuen sarrerarako erregimen hau abenduaren 9ko 19/2013 Legeak jasotzen dituen aurreikuspenengatik gauditua izan dela, gardentasun, informazio publikorako sarrera eta gobernu onari buruzkoa. Herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eta artxibo eta erregistroetara jotzeko eskubidea dute, gehienez ere hilabeteko epean, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legeak (besteak beste, 30/1992 Legearen artikulua horiek aldatu dituenak) ezarritako modu eta baldintzen arabera. Zehaztu beharra dugu lege hori ez dela berehala indarrean sartuko, pixkanaka-pixkanaka baizik, eta toki-administrazioen kasuan, epea 2015eko abenduaren 11n bukatuko dela.

4. Horretaz guztiaz gain, adierazi behar dugu Hondarribiko Udala ez zela prest egon erakunde honekin lankidetzan aritzeko. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu, agiri, txosten edo argibide guztiak lehentasunez eta ahalik eta lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan azaldu dugunaren arabera, udalak erakunde honekin dituen legezko betebeharrak ez ditu bete.

Erreklamazioaren xedea eta aurreko ataletan adierazitako gogoetak ikusita, ondoko hauek helarazi behar dizkizuegu:

#### Ondorioak

1. Azaldutako gogoetak kontuan hartuz, ondorioztatu beharra dugu Hondarribiko Udalak erantzun arrazoitua eman behar diela (...) kaleko (...) zenbakiko lokalean (... kafetegian) egindako obren gaineko informazio-eskaerei, eta erantzukizuna eskatu behar diola eskaera hori izapidetzeaz arduratu behar duen pertsonari, bi urte baino gehiagoko atzerapenagatik.
2. Bestalde, esan behar dugu Hondarribiko Udalak ez duela ezein unetan Ararteko erakundearekin elkarlanean aritzeko jarrerarik izan eta, hala, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko goi komisario den aldetik, administrazioaren ekintza ilegalak edo bidegabeak zuzentzen saiatzeko daukan betebeharra eragotzi du.
3. Azkenik, azpimarratu behar dugu larria dela udala lankidetzan aritzeko prest egon ez izana eta, ondorioz, zioen idazki honetan gure esku-hartzea amaitutzat eman behar dugula, eragindakoei mahaigaineratutako kexaren inguruko arrazoizko erantzuna eman gabe.

